

Gregorio Urionaguena
'Aitxu' dantzaria hil
da, 103 urtegaz



Abadiño | Gerra zibilean Bizkargiko erresistentziara joan zen. • 7

“Urte amaieran edo
2021eko hasieran
lehiatzeko
itxaropena dut”



Gurutze Frades Larralde
Triatleta • 9

“Everestera igotzea
sinbolo bihurtu zen
gizarteko maila
askotan”



Kike de Plabo Benito
Mendizalea eta irakaslea • 6

Terrazak zabaltzea normaltasunerako pauso txiki bat

Astelehenean, lehenengo faseko lehenengo egunean hainbat tabernak terrazak zabaltu zituzten. Eguraldiak askorik lagundu ez arren, herritarrek tabernetara joan dira, “normaltasun berrira” bidean. • 4

Atxondoko
Maisuen etxea
eraitsi dute
AHTa eraikitzeko

Atxondo • Adifek orain hamarkada bat desjabetutako eraikina martitzenean eraitsi zuten. Atxondoko herritarrek hainbat erabilera eman diote etxe horri. • 12



ESKAINTZA
BEREZIAK

Ekainaren 30era arte

DESKONTUAK eta
OPARI BEREZIAK

Hartu hitzordua: info@schmidt-abadiano.com

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen





Taberna batzuetako terrazak beteta egon dira, baina beste ostalari batzuek ez zabaltea erabaki dute.

Dudak eta eguraldi txarra albo batera utzita, Durangaldeko kaleak normaltasun berrira hurbiltzen hasi dira terrazai dagokienez

Askok zarratuta jarraitzea erabaki duten arren, hainbat ostalarik taberna zabaltea erabaki dute, kaleei "normaltasun itxura" berreskuratzen laguntzeko

DURANGALDEA • A.M./M.Z./J.D.

Bezeroak tantaka goizez, taldeka arratsalde, pauso txikiekin hasi da normaltasun berri baterako ibilaldia. Tabernariak terrazetan atzera eta aurrera ikusten dira, eskularruak eta maskarak jantzita, erretiluan xaboi eta guzti. Pazientzia aliatu are beharrezkoagoa bilakatu da egunotan, eta aurrera begira ere horrela izango delakoan daude tabernari zein bezeroak. "Orokorrean jendeak errespetuz jokatzeko du, badaki hasiera ez dela erraza izango, eta laguntzeko prest dago", dio Durangoko Amalur tabernako Jon Biotak. Barra alboan duten leihatilatik baino ezin da eskatu edaria, eta mahaietan txartel gorriak eta berdeak erabiltzen dituzte, erabili eta gero mahaia desinfektatuta dagoen ala ez jakinarazteko hurrengo bezeroari. "Probak egiten gabiltza, eta akatsetatik ikasten, langile eta bezeroen osasuna bermatzeko eta zerbitzurik egokiena emateko", gaineratu du Amalurreko tabernariak.

Ostalariek urduritasunez bizi izan dituzte taberna zabaldu aurreko zein ondorengo egunak. Izan

ere, irizpideak ez dira argiegiak izan. "Leku gutxi izango dugu eta ez dugu oso argi izan zabaldu ala ez! Ez dakigu dirua irabazi ala galdu egingo dugun, baina aproba egingo dugu", adierazi du Iurretako Gaurgi tabernako jabea den Lorena Porrak. Iritzi berekoa da Durangoko Herria tabernako Angi Uriak: "Diru aldetik beharbada ez du merezi izango zabaltea, baina pentsatu dugu denok egin behar dugula

Orokorrean, berezok errespetuz jokatzeko dutela nabarmendu dute tabernaririk gehienek

zerbait normaltasunera itzultzeko". Uriaren kasuan ere, ez dira gutxi izan zabaldu aurreko zalantzak. "27 urte daramatzagu hemen, eta ematen du zerotik hasten garela", adierazi du.

Kezkak edonon

la hile bian taberna itxita edukitzea zama handia izan arren, tabernari

askok taberna zarratuta mantentzea erabaki dute. Elorrioko Parra Tabernako Txaber Igarza ez dago ados tabernak zabalteko planteamenduagaz. "Kontuan hartu behar da Euskal Herriko tabernarik gehienek ez dutela terrazarik, eta gure ustez denok batera joan behar genuke. Bizkaiko ostalaritzatik kartel bat heldu zaigu protesta moduan, eta bertara atxikitzea erabaki dugu. Beraz, ez dugu Parra zabalduko", gaineratu du Igarzak. Tabernek terrazak baino ezin dituzte zabaldu lehenengo fase honetan, %50era mugatuta, eta horrek burukomin handia eragin die askori. "Bete beharreko neurriak betetzeke, itxialdiaren aurretik geunden lantalde bera edo handiagoa behar genuke. Bezeroek, oster, terrazaren %50 baino ez dute beteko, hau da, taberna osoaren %25. Egoera horrek lan baldintzak okertzea ekarriko luke", dio Mikel Lupiañez ostalariak. Napozt eta Ai Ama tabernen jabeetariko bat da bera; eurek ere ez zabaltea erabaki dute.

Bezeroak hamarrekotaldetan batu daitezke asko jota, eta taldeko lagunaren artean zein taldeen artean

metro biko distantzia gorde behar dute betiere. Zerbitzu bakoitzaren ondoren, tabernakoek mahaia eta aulkiak desinfektatu behar dituzte hurrengo bezeroek erabili aurretik.

Ostalariek erraztasunak ere eduki dituzte udalen aldetik; izan ere, Durangaldeko herririk gehienetan terraza guneak handitzeko aukera eskaini dute. Udaltzainen eta ertzainen joan-etorria ohikoa

Durangaldeko udalek terraza guneak zabalteko aukera eskaini diete ostalariei

bilakatu da, tabernetan ere segurtasun tartekak betetzen direla bermatzeko.

Krisialdiaren itzala

Eguraldiak asko lagundu ez arren, herritarrek gogotsu hartu dute tabernak zabaltea, bere osotasunean zabaldu ez badituzte ere, eta kaleetako itxura gotik behera alda-

tu da. Orain, egoera hurbilago dago osasun krisiaren aurreko normaltasunetik. Durangoko Tabiran ikusi da hori. Jendea paseoan, bertako parkean, gazte kuadrillak elkarrengaz (segurtasun neurriak hartuta asko). "Hile garrantzitsu bi galdu ditugu, baina denok antzera egongo garela suposatzen dut, eta hemendik aurrera ere antzera izango da", azaldu du Iñigo Zarandona Durangoko Tabira Etxeako jabeak. Udaberriaren ohikoa da Tabirako inguruak jendez lepo ikustea. Astelehenean, antzerako argazkia ikusi ahal izan zen, aspaldiko partez. "Ikaragarria izan zen. Jendea gogotsu etorri zen, eta ni bakarrik egotera, nahikoa lan eduki nuen, gehiegi", gaineratu du. Goizean zabaldu, eta ordubete hartu ondoren bazkaltzeko, Zarandonak arratsaldean ere zabaldu zuen taberna. Datozen hileak gogorak izango direla aurreikusten du Zarandonak, izan ere, tartean Tabirako San Pedroak ere kolokan daude. "Ez dakit ospatuko diren ala ez. Gainera, krisialdi honek denoi eragingo digu ekonomikoki. Hile batzuk barru ikusiko da benetako eragina", esan du.



Abadiño.



Durango.



Elorrio.



Durango.



Durango.



Durango.



Durango.



Durango.



Elorrio.

 **Smurfit Kappa**
Central Forestal

50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

 **Smurfit Kappa**
Nervión





JON
BIOTA
AMALUR

“**Lehen hiru edo lau bezerori eskaintzen nien denbora orain bakarrari eskaintzen diot**”

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Astelehenean, Murueta Torreko Amalur tabernak berriro zabaldu zituen ateak, hile bian itxita egon eta gero. Tabernak oso harrera ona du auzotarren artean, eta segurtasun neurriak tarteko, hasi dira herritarrek bertara joaten.

Zelan joan dira lehenengo egunak?

Goizetan lasaiago arratsaldeetan baino, baina ondo orokorrean. Ikusten goaz zer hobetu daitekeen. Terrazaren egitura aldatu egin dugu, adibidez. Auzo taberna bat gara, auzoko bakarrak, eta terraza

zabal ipintzeko aukera dugu, baina dena betetzea ere ez da kontua, umeek jolasteko aukera eduki behar dutelako, eta herritarrek paseatzekoa. Udalagaz hartu-emanetan gaude, irizpideak ezagutzeko edo dena delakoa aldatzeko.


Eta bezeroek, zelan erantzun dute?

Ohiko bezeroak etorri dira, eta ondo. Protokolo zehatz batzuk daudenez, jendeak pazientzia gehiago eduki beharko du, baina lasai etorri dira orokorrean. Eskularruekin eta musukoagaz lan egin behar dugu, dena desinfektatu behar da... Lehenago hiru edo lau be-

zerori eskaintzen nien denbora orain bakarrari eskaintzen diot. Patxadagaz hartu behar da.

Hemendik aurrera, zer?

Buf, ez da erraza horri erantzutea. Ez dakigu. Egunerokoagaz ikusiko dugu. Guk gogo itzela genuen taberna zabalitzeko, eta jendeak ere bai tabernara etortzeko. Egunerok, ahal den heinean ikasten eta hobetzen joango gara, baina gatz da ezer aurreikustea. Ez dakigu zelan egongo garen, ezta datorren astean bertan ere, edo gorakadarik egongo den. Batek daki.



MIKEL
LUPIAÑEZ MINTEGI

Napozt eta Ai Ama

“**Ez genuke galdu gura une honetan gizartearen eredu izateko dugun aukera**”

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Astelehenean ez zituzten taberna guztiek zabaldu ateak. Batzuek itxarotea erabaki dute, oraingoz. Napozt eta Ai Ama tabernak horren adibide bi dira.

Oraingoz ez zabaltzea erabaki duzue.

Iruditzen zaigu gaur egun ostalaritzak hiru erroka dituela aurretik: osasuna, arlo ekonomikoa eta arlo laborala. Ez genuke galdu gura tabernok une honetan gizartearen eredu izateko dugun aukera. Bete beharreko neurrien jakitun gara dagoeneko, zein garrantzi, zein efekti-

bitate edo zein intzidentzia duten argi ez badaukagu ere, baina ez garenez ez zientzialariak ez medikuak, gure arrazoiak arlo ekonomiko eta laboraletik jorratuko ditugu.

Zeintzuk dira arrazoi horiek?

Tabernetako okupazio portzentajeak denen ahotan daude eta ahalegina egingo dugu era ulergarri batean azaltzeko: eskatzen zaizkigun neurriak betetzeko, itxialdiaren aurretik geunden lantalde bera edo handiagoa beharko genuke; hau da, lantaldearen %100. Bezeroek, oster, terrazako %50 beteko dute; hau

da, taberna osoaren %25. Eta hori baikorrek izanda, portzentaje horretan ez direlako sartzen lehen barran egoten zirenak. Bestetik, hornitzaileekin dugun hartu-eman ere ekarri gura genuke harira. Taberna baldintza haue- tan zabalduz gero, hau da, goian esan ditugun portzentaje horiekin jardunez gero, kate guztian, hornitzaileengandik langileenganaino, prezioetan jaitsiera itzela izango litzatekeela uste dugu, eta horrek eragin zuzen eta bizkorra izango zuen lan baldintzetan. Zintzoena apur bat itxarotea dela esango nuke.



AMAIA
MUNITXA SANTOS

Taberna Zarra

“**Ahal izan dugun moduan zabaldu dugu taberna, etxekoekin**”

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Segurtasun neurriak hartuta, hainbat taberna zabaldu dituzte asteon Durangaldean. Horiatariko bat Traña-Matiena (Abadiño) auzoko Taberna Zarra da.

Zelan joan dira lehenengo egun hauek?

Egunek aurrera egin ahala, geroago eta jende gehiago animatu da, eta ikusi dugu batez ere arratsaldean etortzen dela jendea tabernara.

Hainbat segurtasun neurri hartuta zabaldu duzue taberna.

Horrela da, bai, eta hemendik aurrera

ere beste hainbat hartu beharko ditugu. Badakigu eguraldi onagaz jende asko ir- teten dela kalera, eta beharbada terraza bete daitekeela. Beraz, egun horietan oso ondo neurtu beharko dugu mahaien arteko tartea, dena kontrolpean izateko. Horrez gainera, udalari eskerrak eman gura dizkiogu banatu dizkigun pantaila eta manparengaitik.

Jatekoa ere ematen zabilzate?

Astelehen goizean ikusi genuen buletin ofizialak eta egunkariek ez zutela ezer esaten jatekoen inguruan. Orduan, ostalaritza elkartera deitu genuen. Hor

hutsune bat zegoela esan ziguten, eta oraingoz jatekoa emateko aukera dugu- la. Beste neurri batzuk ere eman zizki- guten mahai-tresnei eta mahai-zapiei dagokienez. Azken unean, baina, lortu genuen bazkariak ematen hastea.

Taberna zabaldu ala ez zabaldu, izan du- zue zalantzarik?

Guk beti esan izan dugu zortea dugula Traña-Matienako terrazarik handiena daukagulako. Orduan, guk zabalitzen ez badugu, nork zabalduko du? Ahal izan dugun moduan zabaldu dugu taberna, etxekoekin, baina zabaldu dugu.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2020ko maiatzaren 15a
18. urtea - 807. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Gremioen gida

anboto

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

 **UNAI GARAY**
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalzaile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**


Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiainre, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 pabellioak ABADIÑO
944 071 791 - 492 852 779

 **Zurgintza**


EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberitzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com

 **Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



“Martin bizirik jaistea miraria izan zen eta besteok ez irtetea erabaki genuen”

Atzo 40 urte, 1980an, euskaldun batek lehenengoz zapaldu zuen Everest mendiko gailurra; Kike de Pablo durangarra espedizio hartako kidea izan zen eta egun hura gogoratu du



MENDIA • JOSEBA DERTEANO

Martin Zabaletak baino ez zuen egin gaina, baina taldeko garaipena izan zen. Orduan, horrela ulertzen zuten alpinismoa. Kike de Pablo Zamoran jaiotako durangarra espedizio hartako kidea izan zen. Besteak beste, Zabaletak tontorrerako bidean bizitako arriskuak gogoratu ditu.

40 urte joan dira, baina euskaldunon memorian bizi-bizirik dirauen balentria lortu zenuten.

40 urte, bai! Egia esanda, gauza batzuk ahaztu egiten dira eta urteurrenetan memoria apurtxo bat egiten dugu hedabideekin. Ondo dator. **Espedizio osotik Martin Zabaleta heldu zen gailurrera. Zergaitik?**

Beste sasoi batzuk ziren eta talde osoak gailurra egitea gatz zen, guretzat zein edozeinentzat. Baina beste ikuspegi bat zegoen: gailurra talde moduan egiten zen. Taldetxotan banatzen ginen eta lehenengoak lortzen ez bazuen, bigarrena ahalegintzen zen, eta gero hirugarrena. Espedizio hartan lehenengo talde biek ez zuten lortu, eguraldi txarra egin zuen eta. Hirugarren taldea Juan Ignacio Llorentek eta Martin Zabaletak osatutakoa zen. Baina oxigeno botila batek huts egin zien eta Martinek bakarrik jarraitu zuen. **Imajinatzen dut Martinek gailurra egin zuela esan zizuenean festa nagusituko zela.**

Lehenengo jaitsi egin behar zuen.

Mendian eta Everesten garaieran... Eguraldia ez zen aproposena eta Martin ondo jaistea zen gure ardura. **Egon zen arrisku momenturik?**

Bai. Goranzkoan, beragaz zihon sherpa erlaintz batetik behera jausi zen, gailurretik gertu, eta Martinek topera ipini behar izan zuen oxigenoa sherpari laguntzeko. Gero, jaitsieran oso nekatuta zeuden biak, ezin zuten gehiago, botilako oxigenorik barik geratu ziren eta ilundu egin zitzairen. Hantxe eman behar izan zuten gaua. *Walkie-talkie* bidez komunikatzen ginen eurekin eta animoak ematen genizkien. Eguna zabaldutakoan martxan ipini ziren eta berba egiten nion: "Aupa, Martin, animo, orain pauso

bat, orain beste hanka...". Azkenean, euren bila irtendako sherpekin topo egin zuten. Eguraldia ez zuten lagun izan eta Martin bizirik heldzea miraria izan zen. Besteok ez irtetea erabaki genuen. Beraz, ez ginen inor abiatu. Baina garrantzitsuena lortuta zegoen, gailurrera heldu ginen.

Lorpen hura euskal alpinismoan mugari bat izan zela uste duzu?

Alpinismo moduan, ez dut uste. Osotasunean begiratuta, gurea ez zen izango orduko alpinista talderik onena. Aukeraketan lau probintziatiko [Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta

“**Esango nuke gure lorpena sinbolo bihurtu zela gizarteko maila askotan. Orduko testuinguru politikoa ere beste bat zen**”

Nafarroa] kideak egotea begiratu zuten. Baina esango nuke gure lorpena sinbolo bihurtu zela gizarteko maila askotan. Orduko testuinguru politikoa ere beste bat zen.

Goi mendietako abenturek gaur egun baino kutsu erromantikoagoa zuten orduan?

Tira, diruak eta interesak jokoan dauden espedizio komertzialak alde batera utzita, gaur egun gertatzen dena da askoz gehiago garelara. Populazioa asko hazi da. Orduan gutxiago ginen eta dena bakartiagoa zen mendian. Baina berdin gertatzen da gure inguruko mendietan ere. Motibazioari dagokionez, denerik egongo da: batzuek mendiaz maiteminduta igoko dute, beste batzuk egoa asetzearren edo interesengaitik...

Mendian ibiltzera ohituta, konfinamendua gogorra egin zaizu?

Ez zait gogorra egin. Inguruko osasunak arduratzen zaitu, jakina, baina etxean egotea ondo eraman dut. Liburuak irakurtzen, hau edo beste egiten, arin igaro zait denbora. Beste egoera batzuk ekarri dizkit gogora: eguraldi eskasagaz mendiko beheko kanpalekuan kanpin-dendatik zazpi egunean irten barik egon nintzenekoa eta antzerakoak.

Lau hankako mahaia

Juanan Bueno
EH Bilduko
zinegotzia



Benetako aniztasun bat

Denontzako tokia izango duen mundu bat sortuko dugu? Eraso barik, beldur barik...

Maiatzaren 17an, Bifobia, Transfobia, Lesfobia eta Homofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna ospatzen dugu. 1990ean Osasunerako Mundu Erakundeak homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik kendu zuen.

Asier Santamari(c)a aktibista transfeminista eta idazlea genero identitatearen arloan “marica” bezala identifikatzen da. Bere esanetan, marikiek feminitate propioa daukate. Sentimendu pertsonal hori alde batera utzita, Santamari(c)ak hitzaldi batean ondorengo esan zuen eta bertan esandakoa bai bada garrantzitsua: “El género y la sexualidad son dos códigos a través de los cuales hemos aprendido a leer los cuerpos. Pero estos idiomas generan violencias en los sujetos que no se ajustan a su gramática.” Erreflexio hau barnatzea oso garrantzitsua dela uste dut, denok egin beharko genukeena. Gaur egun EAEko gazteak gero eta tolerantetagoak dira, eskerrak. 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %94 ez daude ados “funtsean homosexualitatea gaixotasun bat da eta horrela tratatu behar da” dioen esaldiarekin. Estatuan datua baxuagoa da, “tristemente”. Helduko al gara noizbait %100era? Ojala!

Denon ardura da gai honen inguruan hausnartzea. Neska mutil asko sufritzen ari dira, eta ez eurak bakarrik, baita euren familiak ere. Askotan biolentzia moduan manifestatzen da eta ezin dugu onartu. Ezin dugu onartu eraso transforbik (ezta eraso matxistarik ere, noski!). Benetako aniztasun bat lortzea izango da gure helburua.

ibaizabal
IKASTOLA

GOI-MAILAKO LANBIDE-ZIKLOA HAUR HEZKUNTZAN

ATE IREKIAK:
Maiatzaren 19an, 18:00etan

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

Arrike
Liburudonda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Gerogorio Urionaguena 'Aitxu' dantzaria hil da, 103 urtegez

20 urtegez Bizkargiko erresistentziara joan zen, frontera; Andra Maria elizako erlojuak konpondu eta zaindu zuen

DURANGO • JONE GUENETXEA

Gregorio Urionaguena Arriaga 'Aitxu' 1917an jaio zen, Lebarioko Ola baserrian. Bere pasioa dantza izan da. Aurrekulari trebea izan zen hainbat herritako plazetan. 6 urte zituela, 1923an, 'Aitxu'-k Salbadoren dantzan egin zuen lehenengoz. Gerra zibila bizi izan zuen. 20 urtegez Bizkargiko erresistentziara joan zen, frontera; handik Sollubera, Santo Domingoko aldatzera, Bilboko erreka eta zubiak defendatzera. Portugaleten, Gallartan, Gasteizko eta Urduñako seminario zaharreen ere ibili zen gerra saioan. Abadiñoako Udaletik Errusiako gudan laguntzeko deia izan zuen, baina ez zen joan. Soldaduska Logroñoako kuartelean egin zuen 'Batalln de trabajadores nº 18' delakoan.

1955ean Garaje Gregorio sortu zuen, Durangoko Astarloa kalean. 72 urtegez jubilatzen. Gregorioren beste zaletasunetariko bat, jubilatzen ostean, erlojuak konpontzea zen eta, horrela, Durangoko Andra

Maria elizako dorreko erlojuak, hainbat urtean gelditu egon zena, konpondu eta zaindu zuen.

Omenaldi hunkigarria

Joan zen abuztuaren 10an, Gerediaga auzoko jaietan, auzokideek omendu egin zuten Salbadore egunez. Ekitaldian xume bat prestatu zuten berarentzat. Ekitaldian 'Aitxu'-k publikoaren txalo zaparradari erantzun zion: "Sei urtegez hasi eta ahal izan dudun guztietan etorri naiz Salbadore egunez. Aurrekua ahal izan dudun guztietan egin dut. Baina, orain, zahartzaroan, ezin dut egin. Oso pozik nago hainbeste jende hemen ikusteagaz. Esperantza daukat datorren urtean ere hemen elkar ikusiko dugula". Gerediagako plazak 'Aitxu'-ren falta igarriko du.

"Bada herri honetan belaunaldi bat guda galdu eta aurrera egiten jakin duena. Gregorio belaunaldi horretakoa da", azaldu zuen Kepa Bengoa Hamabi Harriko kideak omenaldian.



Gregorio Urionaguena Gerediagako jaietan egin zioten omenaldian, familiagaz egindako argazkian.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP



Ate Irekiak Online

Maiatzak 25 - 26 -27

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmh • onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683



2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Zergatik aukeratu zenuen Mekatronikako Heziketa Zikloa?

Urte bitan informatika denda batean lanean ibili nintzen, ordutegi eta soldata txarretik irten nahi nuen, horretarako berriz ikastea erabakita. Mantentze kontuak beti interesgarriak iruditu zaizkit eta denda hartatik irteteko, Mekatronikako zikloa egitea ideia hoberena zela pentsatu nuen.

Zergatik MGEP?

MGEPen DUALari bultzada handia ematen zaiolako aukeratu nuen eta nik, bai edo bai, DUALa egitea nahi nuen. Bestalde, Durangokoa naiz, gelako bat ezagutzen nuen aurretik eta biok kotxez joateko aukera genuen.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

Nik azterketak egitea baino metodologia hobea dela esango nuke, talde lanean praktika izatea ondo dago eta erronka egiterakoan praktikan trebatzen zara. Azterketekin baino gogo handiagoa jartzen da eta ondorioz gehiago ikasten da.

Non egin duzu DUALa?

Fagor Ederlanen egon naiz (Eskoriatzan). Hasieran makinista bezala egon naiz, oinarriko elementuak ezagutzeko eta lan errimora egokitzeko. Honen ostean autokontrolak egiten hasi nintzen eta COVID-19 kontuak hasi baino lehen erremintak edo tresnak konpontzen nengibilen. Langileekin harremana oso ona izan da hasieratik. Piezak egiterakoan kontu askorekin ibili behar nintzen. Adibidez, errebabak, poroak, tolerantziak, e.a. Oso garrantzitsua da ondo begiratzea piezak, pieza bat bezeroari txarto heltzen bazaio, erreklamazio bat heltzen zaio Ederlani eta. Lanean dena astiro eta ondo egitea da onena.

Fagor Ederlanen eginiko lanean, zikloan ikasitakoa erabili duzu?

Hasieran nahiko lana lan eremua ezagutzen, baina poliki-poliki, batez ere erremintak edo tresnak konpontzen hasi nintzen geroz eta gehiago erabili izan ditut zikloan ikasitakoa. Gainera, enpresa bertan hainbat formazio sesioak izan ditugu. Adibidez, PRL-n formazioa, zubi garabi, kalitate formazioa, ia asteazkeneko 3 orduko formazio bat izan dugu eta nire ustez ideia bikaina da, lan munduari buruz eta konkretuki, Ederlan enpresari buruz asko ikasi eta ezagutu dugu.



ASIER ALDAI LARRINAGA - Durango

Maiatzean ere Internet bidezko klaseei eustea aurreikusten dute Durangaldeko ikastetxeek

Maiatzaren 18rako aurreikusita zen itzulera ez da gauzatuko. Jaurlaritzak erabakia zentro bakoitzaren esku utzi du eta Internet bidezko klaseekin jarraituko dute ahal duten neurrian

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak joan den astean esandakoak hautsak harrotu ditu. Sailburuaren berbetan, ikasleak maiatzaren 18tik aurrera itzuli ahalko lirarteke ikastetxeetara, hau da, datorren astelehenetik aurrera. Sindikatuek hasieratik erakutsi zuten aurkako jarrera, eta gurasoen artean ere agerikoa zen kezka. Aste honetan zehar, ostera, Eusko Jaurlaritzak esan du ikastetxeek "autonomia" edukiko dutela itzulera erabakitzeke. ANBOTOK jakindakoaren arabera, hainbat ikastetxek lasaitua hartu dute erabakiagaz, eta, orokorrean, maiatzean klase telematikoekin jarraituko dute. "Ez dugu aurreikusten itzulera orokorrik egongo denik. Internet bidezko klaseekin zailtasunak dituztenekin, DBHko ikasleekin batez ere, zer egin aztertzen ari gara", ipini du adibide moduan Jon Gorriño

Itzulerak mailakatu beharko lukeela defendatzen dute ikastetxeek

Durangoko Institutuko zuzendariak. Batxilergoko bigarren mailako ikasleekin selektibitatearen proba zelan prestatu ere aurreikusten ari dira.

Internetera egokitzen

Jesuitak ikastetxean ere pozik daude eskola telematikoekin. "Hasieran zaila izan zen, baina orain ikasle-irakasle hartu-eman hori bermatzen du", azaldu du Eva Rodriguez zuzendariak. Hala ere, ez dute baztertzen mailakako itzulera bat, beste hainbat zentrotan legez. "Ez da inolaz ere masiboa izango, eta klase horiek espazio handietan emango dira". Iritzi berekoak dira Ibaizabal ikastolan ere. Dena prest edukiko lukete maiatzaren 18ko itzulerrako, baina atzeratzea erabaki de-

Klase telematikoekin hasieran arazoak izan dituzten arren, ondo moldatu direla diote

nez, tartea edukiko dute are gehiago fintzeko. "Egoera normalean ere, maiatzaren 15ean ziren amaitzekoak klaseak. Orain azterketetan geundeke", azaldu du Iker Gomez de Segura zuzendariak. "Orain artean, maila edo kasu bakoitzerako erabakiak hartu ditugu, eta beharizan horien arabera prestatu dugu dena. Itzulerak progresiboa izan behar du. Selektibitatea prestatzeko klaseak ikastolan bertan izatea gura genuke, betiere osasun neurriak bermatuta", gaineratu du. Ikastetxeetan, azterketak Internet bitartez egitea egokitu zaie konfinamendu sasoiari, eta orain aukera bi aztertzen ari dira: ikasgai batzuk Internet bitartez egitea, eta beste batzuk modu presentzialean.

Salbuespena tailerrean

Maristak ikastetxean ere pozik daude sare bidezko klaseekin, eta ez dute beharizanik ikusten batxilergoko ikasleak ikastetxera bueltatzeko. Ostera, Lanbide Heziketako ikasleak tailerrera itzultzeko aukera aztertzen ari dira. "Ikastetxean bertan eginiko pan-

Maristak ikastetxea tailerreko klaseak eskaintzeko aukera aztertzen ari da

taila eta maskarak jantzi beharko lituzkete ikasle zein irakasleek. Talde txikitik banatuko lirarteke, eta askoz jota talde bi egongo lirarteke zentroan aldi berean", azaldu du Daniel Irazola Maristak zuzendariak. Bere berbetan, "malgutasuna" da gakoa.



Durangoko Institutua.



Ibaizabal Ikastola.



Maristak ikastetxea.

“Nire ibilbideko sasoirik onenean amaitu nuen urtea, eta martxoan berriro onenean nengoen”

Gurutze Frades triatleta iurretarra Hegoafrikako Ironmanean lehiatzeko prest zegoen koronabirusaren eraginez dena bertan behera geratu zenean

TRIATLOIA • AITIZBER BASAURI

Triatleta iurretarra Peñiscolan (Herrialde Katalanak) entrenatzen da neguan, eta koronabirusak bertan harrapatu zuen denboraldiari aurre egiteko sasoiari, Hegoafrikako Ironmana aurrean zuela. Peñiscolan jarraitzen du eta ziurgabetasun egoera argitzen joan ahala erabakiko du zer egin.

Koronabirusak sasoi betean harrapatu zintuen, Hegoafrikako Ironmana lehiatzeko prest zeundela. Kolpe handia da.

Bai. Egindako lan guztia pikutara joan zen. Peñiscolan gelditzea erabaki genuen eta sasoiari nengoen arren ez zuen zentzurik maila horri eustea. Beraz, deskantsatzea eta erritmoa jaitea egokitu zitzaizkidan, entrenamendu karga arintzea. Lasai gaude hemen, ez dago jende askorik. Gauden egoeran plus bat da hori, baina kirolari profesional bezala sasoiari eutsi behar diogu, eta egoera honetan ez da erraza. Entrenamendu mota bat diseinatzen joan gara, ahal den neurrian.

Zelan entrenatu zara?

Arrabola dut etxean, kirolariok behar dugun gaitasuna lantzeko. Korridorean arinetan ere ibili naiz, kalera irtetea ahalik eta ondoen egoteko. Goma elastikoak ere erabili ditut, igeriketako mugimenduak egiteko eta muskulatura lantzeko.

Kirolariek kalean entrenatzeko aukera duzue orain. Eskertuko zenuen.

Bai, egindakoari forma eman ahal izateko; batez ere, igeriketari dagokionez. Gainera, gertu dut itsasoa; hemen gelditzeko beste arrazoi bat da, igerilekuak itxita daudela jakinda. Entrenamendua epe luzera bideratu dut, urte amaieran lehiatzeko aukera izango den itxaropenagaz.

Zelan sentitu duzu gorputza kalean aritu zaren lehenengo egun hauek?



Gurutze Frades Larralde
Triatleta
Iurreta | 1981

Etxean lez, eboluzio bat izan da: apurka-apurka ibili naiz, saio bat eginez goizean eta beste bat arratsaldean. Kirola horretan datza, bilakaera bat egin behar da. Ez dira oso saio gogorrak, baina ondo sentitzen naiz entrenatzen. Asko igarri dut ez dudala igeri egin. Kilometro bi eta erdi egiten ditut igeri, 30-40 minutuan, eta leher eginda heltzen naiz. Inoiz ere ez naiz egon hainbeste denbora ura ukitu barik. Lan handia dago egiteko.

Zelan antolatzen zara?

Hiru kirolak egiten ahalegintzen naiz, denerik apur bat, geroago eta bolumen gehiago sartuta. Batez

“**Kirolari profesional bezala sasoiari eutsi behar diogu eta egoera honetan ez da erraza**”

GURUTZE FRADES

ere, bizikletan, horrek ematen duelako aukerarik gehien. Denboraldi-aurre batean lez jarduten dut. Eboluzio bat egin behar da; gainera, ez dago lehiaketarik. Aurretik,

egunean lautik zazpita ordu entrenatzen nintzen. Orain, bitik hirura. Saio asko egiten ditut. Bizikletan gehiago egiten ditut, hiruzpalau. Tartekatuta egiten ditut saioak, egunaren arabera. Ekin beharra dago, gorputza entrenatuta egon dadin. Urtero, denboraldi bakoitzean prest egoteko entrenatzen gara, eta egindako lan hori guztia oso arin galdu daiteke, aste gutxitan. Lehiatzeko data bat ipini ezean gatx da entrenamendua bideratzea.

Izan duzu arazorik entrenatzeko?

Lehenengo egunean, udaltzainek, Polizia Nazionalak eta Guardia Zibilak gelditu ninduten. Ez zituzten

arau berriak ezagutzen; nire datuak eman eta ez zen ezer gertatu. Gero, gelditu nautenean baimena erakutsi eta ez dut arazorik izan. Auzokoekin ere ez, lehenengo egunetan batzuek susmo txarra hartu arren.

Zelan egin diozu aurre entrenamenduan hasteko nagitasunari?

Etapa desberdinak bizi izan ditut. Lehenengo egunak oso txarto pasatu nituen. Pentsa, gogor entrenatu eta gero oso indartsu nengoen, gorenean, eta bat-batean ezin ezer egin. Nekea itzela da, sentsazio txarrak dituzu... Dena dela, birsortzeko aprobeztatu dut. Kirol apur bat eginda hobeto sentitzen joan naiz, nonbaitetik motibazioa ateratzen ahalegindu naiz, nahiz eta eszenatoki beltza irudikatu, lasterketarik barik zailtasunak sortu daitezke eta babesletzari dagokionez. Dena dela, izan behar zuen horretan pentsatzen duzu. Inoiz ere ez naiz hainbeste denboran geldirik egon, baina, tira, osasuntsu egoteaz gozatzen ari naiz, bikotekideagaz... Ondo gaude, lasai, kirola eginez, eta pentsamendu hori izatea komeni da.

Urte amaieran lehiatu ahal izateko itxaropena duzu.

Nire ibilbideko sasoirik onenean amaitu nuen urtea abenduan, eta martxoan berriro sasoirik onenean nengoen. Horretan pentsatu gura dut. Bueltatuko da normaltasuna, 'normaltasun berria'. Urte amaieran edo 2021eko hasieran lehiatu ahal izateko itxaropena dut.

Konako munduko txapelketa urrian da egitekoa. Zelan ikusten duzu?

Sailkapen lasterketa guztiak bertan behera gelditu dira. Datak atzeratzeaz berba egin dute; sailkapen lasterketak urritik abendura egitea, eta Konako lasterketa, otsailean. Baina oso konplexua da, ez dutelako utziko herrialde batetik bestera joaten. Gainera, baliteke urte amaieran birusa berriro agertzea.



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - ucdental@gmail.com

Bigarren B Mailari buruz hartutako neurriak "errespetatzen" ditu Amorebietak, erabaki guztiekin ados egon ez arren

Hirugarren Mailako igoerekin inoiz baino talde gehiago batuko dira Bigarren B Mailan, eta hori klubaren interesentzat "kaltegarria" dela uste dute

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Amaitu da denboraldia Amorebieta futbol klubarentzat. Espainiako Futbol Federazioak amaitutzat eman ditu Bigarren B Mailako ligak. Erabakietariko bat da ez dela talderik jaitsiko. Kontua da talde dezente igoko direla Hirugarren Mailatik, eta beste multzo bat sortu beharko dute denei lekua egiteko. Egituraren moldaketa hori Amorebietaren interesentzat "kaltegarria" dela uste du Jon Larrea presidentek.

"Taldea kopurua ez handitzea gura genuen eta orain arteko moduan jarraitu", azaldu du Larreak. Klubaren "ardura nagusia" puntu hori zela onartu du. Zergatik? "Taldea kopurua handituta, diru-laguntzak klub gehiagoren artean banatu beharko dira. Maila horretan egotea bera asko kostatzen zaigu: gizarte segurantzari ordaintzea, ordainketak egunean eramatea... Eta orain 20 talde gehitzea kaltegarria da guretzat", dio.

Hirugarren Mailatik Bigarren B Mailara igoerarik ez egotea zen Amorebietaren iritzia. Zelaian eta



Amorebieta Futbol Klubak urte dezente daramatza Bigarren B Mailan.

kirol merituen arabera ebatzi ezin izan dena, bulegoetan ez erabakitzea. Baina konforme daude Bigarren B Mailatik Bigarren Mailarako igoera faseagaz. "Kasu desberdina da. Bigarren Mailan jokatu egingo dira falta diren partiduak. Azke-

nean, futbol klubek kirol emaitzek erabakiko dute nortzuk jaitsiko diren. Ondorioz, Bigarren B Mailan ez bezala, Bigarren Mailan libre geratuko dira plaza batzuk", zehaztu du.

Edozelan ere, behin erabakiak hartuta ez dago atzera-bueltarik,

eta dagoenagaz egin behar da aurrera, Larrearen ustez. "Hamaika erabaki ezberdin hartu zitezkeen. Batzuk ados egongo dira eta beste batzuk ez. Alde onak eta txarrak dituela? Hori argi dago, baina, gure aldetik, erabakia errespetatu behar

dugu eta ahalik eta arinen egokitu behar dugu", dio.

Aurrera begira, zer?

Hurrengo denboraldia ez da urrira arte hasiko. Zelan koordinatuko dituzte entrenamenduak? "Zalantza asko ditugu", onartu du Larreak. Etxeko entrenamenduak amaitu eta zelaietakoak hasten direnerako aurreikusten dituzte buruhausteak. "Gure baliabideak direnak dira. Zelai bi erabili ditzakegu eta jokalariek guztiak han banan-banan entrenatzea... edo azpiegiturak etengabe desinfektatzea... une honetan ezin dugu hori bermatu", onartu du.

Beste alde batetik, klubaren bideragarritasun ekonomikoa dago. Aldi baterako erregulazio bat egin behar izan dute zenbakiak koardatzeko. "Diru sarrerak murriztu egin dira, baina gastuei aurre egin behar zaie. Horren aurrean, erregulazioa irtenbide lez ikusi dugu. Estatuak %70 finantzatzen badigu gutxi gorabehera, beste %30a gu ipintzen ahalegintzen ari gara", azaldu du.

Oraindik ez dituzu Anbotoko albisteak whatsapp-eraz jasotzen?

Batu Anbotoko Whatsapp-era



Bidali ALTA

688 635 041

telefono zenbakira



anboto

“200 lagun jesarrita erromeria bat entzuten... ez dakit zelan aurre egin horri”

Espainiako Gobernuak aurreratutako faseetarako kultur ekintzetako neurriek hainbat kezka sortu dituzte sortzaileengan



Rafa Iriondo Lauzirika
Luhartz taldeko kidea
Oromiño (Iurreta) | 1967

MUSIKA • IGOR GALARZA

Doinu gutxi entzuten dira plazaetan konfinamendu sasoiaren. Luhartz erromeria taldeko Rafa Iriondo soinu-jole eta tekla-jotzaileak horixe du ogibide, jendea musikaren bitartez entretenitzea. Baina musikariei oraindik denbora asko falta zaie oholtzara itzultzeko.

Zenbaterainoko kolpea izan da zuentzat gelditzea?

Alde positiboari begiratuta aurre egin diogu egoerari. Martxo erdira arte, betiko moduan joan zen, bide onetik. Une hartan, bat-batean harrapatu gintuen. Ahalegina egin dugu ahalik eta emanaldi gutxien geratu daitezten bertan behera. Da-

tak atzeratzea izan da irtenbide bat, eta batzuk, adibidez, urrira pasatu ditugu.

Ez da erraza musikarien egoera.

Kulturalki, autonomoak gara. Profesionalak garela esan dezakegu, eta gure gastuak ere baditugu. Ezin esan lasai egon gaitezkeenik, baina ni neu beti izan naiz baikorra, eta orain ere bai. Ez dugu etsiko egoera honetan.

Gizarteak zaintzen al ditu kultur-gileak?

Kulturarekiko trataera bi ezagutzen ditugu Euskal Herrian: Hegoaldean funtzioaren iraupenaren arabera kalkulatu da jardunaldi; Iparraldean, ostera, egindako funtzio bakoitza hamabi bat ordu-

ko jardunaldi baten baliokidea da. Frantziako Estatuan kultur-gile lez erretiroa hartu zuen lehenengo pertsona Iparraldekoa izan zen. Hegoaldean, ostera, gatz da musikariok bateratzea, bakoitzak bere helburua duelako.

Eta erromeriak bueltatzean, dena izango da berdina?

200 pertsona jesarrita erromeria bat entzuten... ez dakit zelan aurre egin horri. Beste era batera heldu beharko diogu. Baina aldeak ikustea komeni da: ez da berdina Bilboko Kobetamendin 20.000 lagun sartzea edo Iurretako Bakixa auzoko jaiak antolatzea. Beste gauza asko daude erromeriak baino okerrago. Kostatu egingo da normaltasunera

bueltatzea, baina euskaldunok horrelakoak gara, jai zaleak, gure ardoa edatera goazenak. Beldur gara ez dakigulako datorren urtean ere zelan egongo garen, baina ni baikorra naiz.

Koronabirusak udara biderako sasoiaren harrapatu zaituzte.

Udaberrian, martxo eta apiril bueltan, denbora hartzen dugu gure abestien zerrenda gizentzeko eta abesti batzuk ikasteko. Aurten ere asmo hori geneukan, ohi baino abesti gehiago ikastea. Eta horretan jarraitu dugu asteotan, beste era batean ikasiz.

Zelan aldatu dira entseguak?

Orain arte astean behin geratzen ginen entseguak egiteko. Orain,

osteran, bakoitza bizi den lekutik grabatu, eta, teknologia berriek laga diguten heinean, ikasten aritu gara. Bateria doinuak grabatzen hasi, baxu, gitarra eta teklaturak jarraitu, eta, azkenik, ahotsa grabatu. Asko kostatzen da, hori bai. Hasieran, gainera, bromatzat hartuta hasi ginen, baina jendearen berba onek animatu gintuzten aurrera jarraitzen. Horrek erakutsi digu jendeak ez gaituela ahaztu, eta proposamenak ere bidali izan dizkigute.

Zer gertatuko da etorkizun hurbileko planekin?

Zer egin genezakeen pentsatzen ere aritu gara. Izan ere, ez dago ezer argirik oraintxe bertan. Lotuta ditugun kontratuei begira, Bilbok

“**Kostatu egingo da normaltasunera bueltatzea, baina euskaldunok jai zaleak gara, gure ardoa edatera goazenak**”

esaterako, ez digu ezer esan, gauzak dauden horretan geratuko direla oraingoz. Bestalde, auzo txikieta-koak bertan behera utzi dituzte. Beraz, noraezean gabiltza. Ameriketako Estatu Batuetara egiten dugun bidaia ere bertan behera geratu da aurten. Pena da. Opor moduan hartzen genuen lan bat zen, baina tira, datorren urtean izan beharko du.

Eta Durangaldeko jaietatik? Berririk?

Durangaldeko herrietatik ez dugu informaziorik jaso. Uste dut jendea zer gertatuko den itxaroten dabilela; baita antolatzaileak ere. Aurrera ala atzera egin behar duten behingoz esatea gura genuke, beste zerbait pentsatu dezagun. Terrazetan jo behar badugu, joko dugu.

Bide berririk aztertu duzue?

Egin izan dugu lan jai pribatuetan, eta hori egin behar badugu, egingo dugu. Errepertorioan aldaketaren bat egin behar bada ere, egingo dugu. Aukera asko ari gara aztertzen, eta, adibidez, soluzioa erromeria streaming bidez egitea bada, behar bada egingo dugu.

arizmendi
ikastola **PRO**

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

ATE IREKIAK ONLINE



943 77 20 25 • www.arizmendipro.eus • arizmendi@arizmendi.eus

Zure Lanerako Bidea

Maiatzak 20

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- MIKROINFORMATIKA

18:00etan

Maiatzak 21

- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- OSASUN LARRIALDIAK

18:00etan

"Apurka-apurka berriro konfinamenduaren aurreko martxa hartzen hasi gara, baita korrika eginez disfrutatzen ere"

Joan zen astetik hona, goi mailako kirolariek udalerriko mugetatik kanpora entrenatzeko aukera dute. June Arbeo korrikalariak, adibidez

IURRETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gainerako herritarren moduan, Durangaldeko goi mailako kirolariek ere etxean egon behar izan dute itxialdian, eta euren egunerokoa eta entrenamenduak egoera berrira moldatu behar izan dituzte. Baina kirolari profesionalak ere normalitate berrirako bidean daude dagoeneko, eta joan zen astetik udalerriko mugetatik kanpora entrenatzeko aukera dute. Horietariko bat June Arbeo Iurretako korrikalaria da.

Hala ere, Arbeok ANBOTOrri aitortu dionez, kanpora irteteko aukera badu ere Iurretan bertan edo Iurretako auzo eta mendietan egiten ditu entrenamendurik gehienak. "Orozketan bizi naiz eta hemen ez daukagu ordutegirik irte-teko. Gainera, hainbat bide ditugu entrenatzeko. Konfinamenduaren aurretik, Durangon entrenatzen nintzen batez ere, bidegorrian eta pista inguruan, baita Atxondoko bidegorrian ere. Baina leku horietan jende asko dabilela jakinda, beste

ibilbide batzuetatik ibiltzen naiz, jende pilaketak saihesteko eta osasuna zaintzeko. Modu horretara, gainera, askoz ere lasaiago egiten ditut entrenamenduak", aitortu du Arbeok.

Bestade, joan zen astetik hona konfinamendua "eramangarriagoa" egiten ari zaiola aitortu du Iurretako korrikalariak. "Egia esanda, kalera irten eta entrena-

Entrenamendurik gehienak Iurretan bertan egiten dituela aitortu du June Arbeo korrikalariak

mentuak bertan egin ahal izatea izugarri igartzen da. Dena eramangarriagoa egiten da. Gainera, apurka-apurka berriro konfinamenduaren aurreko martxa hartzen hasi gara, baita korrika eginez disfrutatzen ere", gaineratu du korrikalari iurretarrak.



June Arbeo mendian.

Aste honetan Atxondoko Maisuen etxea eraitsi dute, AHTa egiteko Adifek desjabetutakoa

AHTrik Ez plataformako kideek elkarretaratzea egin zuten astelehenean, Atxondoko udaletxearen aurrean



Martitzenean, Maisuen etxea eraitsi zuten.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain hamarkada bat baino gehiago, Adifek hainbat lur desjabetu zituen AHTaren bidea egiteko, tartean Atxondoko Maisuen etxea. Orain aste batzuetatik hona, AHTko lanekin dabiltza Atxondon, eta martitzenean Maisuen etxea eraitsi zuten. Atxondoko herritarrek hainbat erabilera eman diote etxe horri: musika taldeen lokalak egon ziren bertan, baita trikitixa eta pandero

klaseak emateko lokalak ere, eta Andasto Dantza Taldearen biltokia ere izan zen.

Bestalde, Atxondoko AHTrik Ez plataformako kideek elkarretaratzea egin zuten astelehenean udal-txe aurrean. "Koronabirusaren krisia hasi zenetik, lehenengo pleno presentziala egin zuten astelehenean, eta hori baliatuta AHTaren kontrako elkarretaratzea egin genuen", esan dute plataformako kideek.

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
ZORNOTZA
LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

ESKAINTZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industriala

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-Ian Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINTZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat Ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

Botikak

BARIKUA, 15 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 16 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

DE DIEGO Intxaurren
22. - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA
Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 17 · 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

RUIZ, JUAN El Alto-Bide
Zahar 14 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 18
· 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A.
Abasolo 2 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 19
· 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - **IURRETA**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 20
09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 21
· 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN
Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, **Araitz**, etxeko guztien partez.



Zorionak, egun ona pasa!



Zorionak, **Jon!** 11 urte egingo dituzu maiatzaren 16an. Egun ederra izan dezazula! Etxeko denok oso harro gaude zutaz! Musu handi bat.



Maiatzak 20xen 2 urte beteko dauz gure etxeko terretuak. Zorionak **Izei**.

Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 15° / 11° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 20° / 8° ☀️

EGUAZTENA 🌡️ 25° / 12° ☀️

DOMEKA 🌡️ 19° / 10° ☁️

MARTITZENA 🌡️ 21° / 10° ☀️

EGUENA 🌡️ 23° / 15° ☁️

CERAMICAS
MACOBER

ZERAMIKA ETA GRESA
DEKORAZIOA ETA APAINKETA
ERAIKUNTZAKO MATERIALA

1300 m² BILTEGI - 800 m² ERAKUSKETA *Etan eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Salmenta telematikoa

ESKAERAK

• e-postaz:
info@hitzliburudenda.com

• WhatsApp-ez:
686 214 964

• Telefonoz:
94 681 0776 (8:00etatik 14:00etara)

ORDAINKETA

• Banku-transferentzia bidez.
• BIZUM bidez.

Bidalketa gastuak 4,90 €
izango dira.

* fardelaren tamainaren eta pisuaren arabera aldaketa izan dezake

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA


PLAZANBAZAN

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiburri)

Bi erlauntzek berdinak ematen dute baina aldeak daude batetik bestera. Ikusten al dituzu? Hamabost dira guztira.



E Man Hamabostekoa...



Buruz behera tente jartzea uste baino arriskutsuagoa da. Hemen, esate baterako, zazpi elementu aldatu dira. Ikusten al dituzu?



...Eta orain zazpikoa

HALI DA PAGOTXA!



Sudokua

		1		6	
6	2				
3					6
4					5
				3	2
	6		4		

Zeren bila dabilta zerleak lorez lore? POLENA biltzen aritzen dira, ezta? Osa itzazu lauki zuriak, hitz hori osatzen dituzten letrak kontuan hartuta (P, O, L, E, N eta A). Gogoratu letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



Itzala

Zein da lorearen itzal zuzena?



Tokiko hedabidea Tokiko dendetan

Krisi sasoi honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa da informazio zuzena izatea. **ANBOTO**ko webgunean etenbako jarraipena egiten ari gara (anboto.org). Larrialdi egoera honetan paperean ere informazio kontrastatu eta fidagarria argitaratzen jarraituko dugu banaketa puntu hauetan:

ANBOTOren banaketa puntuak:

ABADIÑO / MATIENA

SOLOKOA (Goretti
janari denda) (Zelaieta)

ARRIAUNDI
OKINDEGIA
(Muntsaratz)

GOZOKARS
(Muntsaratz)

PETITE PRENTSA
DENDA (Matiena)

ATXONDO

KIOSKOA

BERRIZ

ETXEBARRIA
ESTANKOA

EGUN ON OKINDEGIA

DURANGO

ETXEBARRIA
PRENTSA DENDA

IKERFER PRENTSA
DENDA

OPEN SHOP
(Askatasun etorbidean)

BIZKARRA
OKINDEGIA
(Alluitz kalean)

KIOSKO PRENTSA
DOMINGUEZ
(Komentukalea)

GOZATU OKINDEGIA
(Ermodo 11)

EGUN ON FRUTA
DENDA
(San Ignazio auzunea 3)

ALBERDI
OKINDEGIA
(Zeharmendieta 7,
San Fausto)

ELORRIO

ILLARGI PRENTSA
DENDA

ROSARIO CEA
FRUTA DENDA

MATZORRI
OKINDEGIA

MAIRU DIETETIKA

IURRETA

URKI PRENTSA
DENDA

IURRETA KOPISTEGIA

MALLABIA

FARMAZIA

MAÑARIA

BIZKARRA
HARATEGIA

OTXANDIO

KOROSTONDO
JANARI DENDA

ZALDIBAR

IMENDIA

OSTARGI
OKINDEGIA
(Ogi berri)

ZORNOTZA

BILLIKEN LIBURU
DENDA

AYERDI PRENTSA
DENDA

BIZKARRA
OKINDEGIA (Gudari
kalean)

BIZKARRA
OKINDEGIA
(Jauregizahar kalean)

ANBOTOgaz informazioren bat partekatu gura baduzu:

✉ astekaria@anboto.org ☎ 688 63 50 41

“Mexikoko mugan grabatu dugu 'La Rumba del Coco' bideoklipa”

David Vila musikari abadiñarrak bideoklipa estreinatu berri du The Rumba Madre taldeagaz. Vilak urteak daramatza AEBetan musika ikasten eta irakasten

David Vila Dieguez
Musikaria Texasen
(AEB)
Abadiño | 1985



AEB • JONE GUENETXEA

Musikak Texasera eramán du David Vila abadiñarra. Aurretik, beste herrialde batzuetan ere bizi izan da, musika ikasketak egiten. Bideoklipa kaleratu du The Rumba Madre taldeagaz (youtuben ikusgai)

Zein egoera bizi duzue momentu honetan Texasen?

Orokorrean, eta salbuespen txiki batzuekin, estatu batuarrek berekoiak dira eta ez dira berrogeialdia egiten ari. Gehienak kalean dabilta. Estatuaren aldetik, estatu eta herri bakoitzak gura duena egiten du. Batzuek hilabeteko koarentena egin dute eta beste batzuek ezer ere ez.

Koronabirusaren krisian koordinazioz ez dagoela esango nuke. Zure ustez, AEBetako gobernuak zelan ari da krisi hau kudeatzen?

Gobernuak ondorengoa egin zuen: 1.200na dolar banatu herritar guztiei. Aberatsek zein beharrian gehiago zutenek kopuru bera jaso zuten. Uste dut beharrian zuten gehiago eman beharko lieketela, eta aberatsei ezer ere ez.

Zerk eramán zaitu AEBetara ?

Lehenengo, Londresen lau-bost urtean egon nintzen, musika ikasten eta gaztelania eskolak ematen. Gitarra karrera amaitu nuenean, AEBetara joan nintzen.

Zerk eramán zaitu AEBetara ?

Lehenengo, urte bian Nebraskan

“

Koronabirusaren krisian AEBetan koordinazioz ez dagoela esango nuke”

■

egon nintzen, masterra egiten. Ondoren, Nashvilleko unibertsitatean beka bat lortu nuen doktoretza egiteko. Hori egiten nuen bitartean klaseak ematen nituen unibertsitatean.

Musikari batentzat Nashville zoragarrira izango da.

Nashville musikaren hiria da. Munduko estudioz onenak hantxe

daude. Edozein tabernatan munduko gitarristak onenak aurkitu ditzakezu. Edozein tabernatan edozein egunetan musika zuzenean entzun dezakezu. Musikari batentzat paradisu da.

The Rumba Madre zure taldeagaz La Rumba del Coco abestiaren bideoklipa atera duzu. Emaitzagaz gustura gelditu zarete? Youtuben ikusi daiteke.

Abestiagaz eta bideoklipagaz lan ona egin dugula uste dut. Abestia Nashvillen sortu genuen. Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugari buruz idatzi genuen. Hango jendeak alde batetik bestera igarotzeko dituen arazoei buruz berba egiten dugu. Gainera, kointzidentzia hutsa da, baina orain Texasen nagoenez, Mexikoko mugan grabatu genuen bideoklipa. Etxeko leihotik Mexiko ikusten dut.

80ko hamarkadako punk musikari buruz egin zenuen tesia. 80ko hamarkadak zer dauka hainbeste erakartzeko?

Ikertzen hasi nintzenean, Euskal Herriko punkari buruz ikertu gura nuen. Gero, ikuspuntua aldatu nuen. La Polla Recordseko Evaristo galiziarra da, eta Eskorbuto taldekoak Galiziakoak eta Extremadurakoak. Pentsatu nuen asko berba egiten dugula *La Movida Madrileñari* buruz trantsizioaz berba egiteko. Eta punkari buruz berba egiten dugu Euskal Herriko egoerari buruz berba egiteko. Sevillan, Madrilen zein beste leku batzuetan ere entzun dute La Polla eta Eskorbuto, eta horrek ere izango zuen bere eragina pentsamendu politikoan. Azkenean, Estatu espainiar osora eta Latinoamerikara zabaldu nuen tesia. Ideia nagusia da, askotan jendeak esaten duela trantsiziozko gazteria despolitizatuta zegoela eta drogak kontsumitzea eta ondo pasatzea baino ez zuela gura. Baina *La Movida Madrileñatik* punkera bagoaz, beste errealitate bat topatu dezakegu.

Larrabetzu eta Arrasateko lagun batzuei eskerrak euskarari eutsi diozu. Urte asko daramatzat bidaiatzen. Ingelesekin eta portugesekin berba egiten dut gehien. Baina Nashvillen Larrabetzuko eta Arrasateko lagunak ezagutu nituen eta eurekin berba eginda euskarari eutsi diot.

Lauhortza

Markel Onaindia
Kazetaria



Herrimina

Itsasontzi baten Euskal Herrikan kanpora eramán ez arren, herrian bertan egonda herrimina sentitu dut azken asteetan. Konfinamenduak eragindako egun arraro hauen kontuak, aizue. Familiako bazkarien falta eduki dut, lobatxoekin jolastu eta barre egitearen nostalgia, lagunarteko kafe eta espuela amaigabeen *morrina*, maite ditugun gure bazterretara joateko dekuagatik *saudade*, aurrez aurreko kultur sorkuntzaren gabezia, herri hobe baten alde ekiteko eta protesta egiteko ezinaren mina. Itxialdiak emandako belarrondoko emozionaler ere berba egin beharko dugu hau dena pasatzean. Onena da, lagun izoztuak zioen lez, eduki daitekeen gauzarik behinena izango dugula oraindik, denbora.

Euskal Herriko aspalditik dakigu herriminez, distantziak, konfinamenduz. Belaunaldiz belaunaldi gaur arte igarotako salbuespen egoerak. Galdetu bestela, urte luzeen ostean berrogeialdiko egun hauetan etxera bueltatu berri diren Gorka eta Aitziberri. Parentesi arteko sasoi luzeak joan dira behingoz eurentzat eta maite dituztenentzat. Oraindik 200dik gora dira etxetik urrun dauden euskal preso politikoak; egunotan barkatze estuagoan, senideen bisitarik barik.

Nire gaurko letra eta berba hauek zuentzat dira. Esateko zuek denak etxean egongo zaretenean amaituko dela gure alarma egoera. Orduan bai, orduan ez dugu negarrik egingo, eta herrian elkartuko gara pozez kantari.



DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona eksklusiboan**, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaituz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa

www.sukia.com